



LEZOKO ALDIKARIA

1203 - 2003


ORRATX 800!



ANTOLATZEKO ERAK



Hemendik zuzendu da lezoarren norabide politikoa mendeetan zehar. Pailo beza politikari daorñion zerbaki hain zahaltzeko



800 POLITKA

ORRATX!· LEZOKO ALDIZKARIA

2 0 0 3 K O A B E N D U A
ZENBAKI BEREZIA

Aldizkari honek erakunde honen laguntza jaso du:



Lezoko Unibertsitateko Udala

NON ZER

5 **zirika**

6 **elkarrizketa**

Patri Urkizurekin solasean




10 **erreportajea**

Lezo eta Hondarribiaren arteko arremanak

12 **erreportajea**

"Carta Puebla"



14 **erreportajea**

1936, Gerra Zibika

16 **erreportajea**

Udal hauteskundeak

17 **ze berri**

Politikari buruzko berriak labur labur

21 **moko goxo**

Udaleko mozioa

22 **lehiaketa**

Aurrekoen erantzunak

BERTSOAK

LEZORI

Doinua: "Iratze okre geldoak"

Ene sorleku den herriari hastera noa kantari, zortziehun urte bete berriak ta halere gazte dirudi. Neska gaztea ala mutila zer den ez dut oso argi, baina munduko toki onena iruditutzen zait neri.

Arestiko anbiguitatea da zure nortasun ikur: emango duzun erantzunaz ni sekulan ez nago ziur; batzutan epel bestetan bero, orain su eta gero ur, Jaizkibekeko lanbro zuritan beztitutako Ama Lur.

Koldar itxura ematen duzu mendi altzoan zaudela, itsasoaren haserralditik ta hiritik ihes bezela. Horrela uler daiteke beraz daukazun altxor itzela: euskal nortasun bizi-bizita eta giputz-nafar hizkera.

Historiaren bide estutan ibiltzen ongi dakizu; ehunka errege, faltsu ta lapur joka aritu zaizkizu, beste hainbeste gerrate eta nik ez dakit zenbat izu, askatasuna ere oraintxe mereziko duzu aizu!

Bi mila eta hirugarren hau urte handia guretzat, mendebaldean hodei ilunak bestean eguzki printzak. Haizea nondik etorriko den hartu beharko da aintzat, Lezo eta lezoarrentzako onena nahi nuke behintzat.

FELIPE BERGARA

ATARIA

AIO!!!

Espero baino lehen urte zahar eguna ailegatu zaigu eta berarekin batera 2003ko urtearen amaiera eta "Lezok 800" ospakizun egitarauaren errematea. Beste alde batetik, eskuetan duzuen aldizkari honek, Orratz! Kultur Elkartek prestatu dituen historia monografikoen bildumari ezezik, Lezoko aldizkarigintzaren beste etapa bati ere amaiera emango dio, hau izango baita Orratz! izenburuarekin argitaratuko den azkena. Momentuz, behintzat.


Ez da urte erraza izan 2003ko hau, ez. Orratz! eta Egunkariarekin hasi zena, Oarsoaldeko Hitza eta Berriarekin bukatu da. Irabazten atera gara. Lehen, hilabete behar genuen Lezoko berriak euskaraz irakurri ahal izateko. Orain, ordea, goizero informazioaren zati bat heltzen zaigu gure buzoietara. Goizero eta etxeraino. Ba al dago gehiago eskatzerik? Berriaren kasua beste mota batekoa da. Egunkariaren itxiera bortitz eta faxistaren ostean, gizartearen babes ikaragarria lortuz, beste egunkari Berria ateratzeko gauza izan da Euskal Herria. Eta aurrekoa baino sendoagoa. Hori marka!

Herriari dagokionez, guzioro oroienez geratuko den eguna bizi izan genuen irailaren 20an, "Lezok 800" eguna hain zuzen ere. Arrakasta bikoitza, bai emaitza zoragarrian baita herri mailan lortutako inplikazioan ere. Ez nuke bukatu nahi, lau aldizkari berezi hauek aurrera ateratzen lagundu duzuen guziori eskerrak eman gabe: ideiak ematen, ideiak burutik kenarazten, artikulua idazten, maketatzen, argazkiak ateratzen, bibliografia lortzen, kontaktuak errazten edo barrea eragiten. Zuek zarete Orratz!! Aurrez aurre ez dudanez, lerro hauek erabili nahi ditut proiektu honen bultzatzaile eta kolaboratzaile bati eskerrak emateko, laster gurekin egongo delakoan, mila esker Imanol!

Besterik gabe, hemen duzue politika gaitzat duen aldizkari monografiko hau eta bildumatxoaren azkena. "Antolatze erak" jarri diogu izena, azken batean politika horixe baita, elkarrekin bizi izateko arauak ezartzeko eta betearazteko modua. Irakurtzen, guk egiten disfrutatugunaren erdia gozaten baduzue, nahikoa!! Aio!!!!!!

ANDER LEON NANCLARES

PEIO GARBIZU



Eskuarte dugun zenbaki hau, Lezoren 800. urtebetetzeko ospakizunak direla-eta, "Orratx!"ek prestatu dituen monografikoetan laugarrena da;

aurrenekoak "800 urteko artelana" izan zuen gai nagusi; bigarrena, Gizartearen murgildurik izenarekin, bataiatu zuten; hirugarrena "Ekonomiaren ildotik" etorri zitzaigun eta berri honek politika du hizpide.

Laugarrena, baina azkena ere bai. Lerro hauek idazterakoan, azken agurra egiten ari nintzela iruditu zait eta halako tristura bat sumatu dut barruan; "Aske" eta "Lezo" aldizkariak eta "Orratx!"ek hirurogeitalau hilabetetan argitara eman dituen aleak etorri zaizkit burura. Bikain aritu zarete!

Oroimina alde batera utzi; triste ez, harro bazik, behar dugu egon halako aldizkariak izan ditugulako, harro "Lezok 800" programaren barruan egin direnak egin direlako, harro irailaren 20ko ospakizunean bete-betea asmatu genuelako. Ezagutu al du inork Lezon horrelakorik inoiz? Ez dut uste.

Aurrera egin beharra dago. Eskuak bete lan dauzkagu gure herri hau gero eta zoriontsuago, atseginago, aberatsago, justuago, solidarioago egiteko. Denon artean egin dezakegu.

Bukatzeko, Eguberrietan baikaude, zorionik beteena opa dizuet lezoar guztioi egun eder hauekarako eta heldu den urte berrirako. Ongi izan •

AITOR SARASOLA



BEDERATZI MILURTEKO. Lezok 800. egitasmoa ospatu dugun urte honetan Jaizkibelgo kostaldean 9.000 urte dituen gizakiaren gorpuzkinak aurkitu dituzte. Euskal Herrian inoiz aurkitu den zaharrena. Instant batean kezka sortu zaigu mendeurrenetik milurteurrenera pasa behar ote dugun. Izan ere, gaur Jaizkibel magalean bizi garenok badugu gure arbaso harekiko loturarik: lurraldea, bai dimensio fisikoan, bai metafisikoan. Bateatik, Jaizkibel lurraldea espazio fisiko bezala. Bestetik, euskal hizkuntza, garai hartako gizakiak hizkuntzaren lehen hastapenak ba omen zituen eta. Jorge Oteiza zenak, garai hartan kokatzen du euskal estetika sortze prozesuaren abiapuntua. Estetika, artea, geografia eta

lurraldearen arteko interakzio moduan ulertuta. Eta estetika horren adierazle nagusia hizkuntza, euskara alegia: euskal arimaren, euskal estetikaren, adierazle.

HERRI HAUSNARKETA. Nola kokatu orduan Lezok 800. gisako egitasmoa 9.000 urteko komunitate zabalago baten kontestuan? Gogora ekarriko dut Lezok 800. egitasmoa aurkeztean esan genuena: gure iragana ezagutzuz, gure geroari buruz hausnartzeko aitzakia. Izan ere, hausnartu beharrik ikusten baitugu 9.000 urtetan osatzen joan den memoria kolektiboaren gurpilean. Hauxe ulertzea nahi genuen: zer izan garen eta zer izan nahi dugunaren arteko zubian, gure nortasunari eusteko borroka egin behar dugula. Ari garen neurrian, bagarela.

JAIZKIBEL BABESTU DEZAGUN. Gure inguruko lurralde fisikoak eraldaketa bortitza jasan du. Azken 50 urte hauek, aurreko ehundaka urtetan baino eraldaketa handiagoa: hazkundera, zabalkundera, errepide berriak, txaletak erruz, industria poligonoak non-nahi... eta Jaizkibel ingurua hondatuko duen superportu erraldoia. Erritmo honetan, datozen 50 ur-

tetan, erabat galduko dira chunka eta milaka urtetan erreferentzia fisiko izan ditugun hainbat eta hainbat txoko. Itsasoarekiko harremana ere ebatsi digute. Hau, ordea, azken 50 urtetako gertaera da. Gaur egungo Lezo ikusita, baten batek esango luke sekula ez dugula izan itsasorako irteerarik, ez garelako itsas bazterreko herria. Gure korsario, pirata eta itsasgizonak noraezean dabilta, etxerako bidea ezin aurkiturik.

LEZO BERRIRO EUSKALDUN. 1.311 lezoarrek ez dakite euskaraz, eta beste askok, jakin arren, ez dute bere egunerokoa erbiltzeko behar beste aukera. Euskal Herrian 1.863.000 lagunek ez dakite euskaraz. Eusko Jaurlaritzaren azkeneko Inkesta Soziolinguistikoak datu kezagarriak jarri ditu mahai gainean. Goazen bitetik ez dugu sekula lortuko hizkuntza normalizazioa.

LEZO BIHAR. Alkatetza bulegoko armairu zoko batean gordeta egongo da "Lezo Bihar" egitasmoaren konklusio eta proposamen bilduma. Kantinean moduan festa eta ponpako ospakizunetan gustura gabiltza, gure kontraesanak, ahuleziak eta premiak azaleratuko dituen hausnarketa publiko eta herritarra saihestu egiten dugu, ordea. Hel diezaigun iragana eta etorkizuna lotu dituen gogoetatik ateratako ondorioei •

1 Apaizak baino gehiago ezkontzen omen duzu...

Azken urteotan halaxe da. Aurten, apaizak 11 eta nik 25.

2 Jaiotzen direnak apuntatzen dituzu. Asko al dira Lezo batean?

Lehengo urtean 60 eta aurten oraingo 47, gutxiago beraz.

3 Eta hildakoak ezabatu egiten al dituzu?

Ez, ez dira ezabatzen. Hala ere, herrian hildakoak zenbat diren jakin nahi baduzu, 12 izan dira orain arte.

6 Ezkontzak, jaiotzak, heriotzak, Zer gehiago egiten duzu hemen?

Lehenik jaiotzak, ezkontzak eta azkenik heriotzak apuntatzen ditut.

Ttanttoka. ANDER LEON**HAMAR GALDERA XELEBRE**

NOR: AGUSTINA PONTESTA **NOLA:** AGUSTINA **ZER:** JUSTIZIA ETA OROIMENA

**4** Izenen artean ezberdintasun handia al dago? Hau da, Robustiano hil eta Ekaitz jai?

Bai, jakina. Hiru izen mota daude. Ohikoak edo biblikoak (Sara, Ruth,...) Norberaren

hizkuntzaren arabera (Ainhoa, Xabier, Lucia, Hugo) eta modernoak (Yuma, Alan).

5 Izenak eta abizenak euskal grafiaz idazteko kanpainak arrakastarik izan al du?

Bai, baina ez hainbeste.

7 Anekdotaren bat izango duzu, ezta?

Ezkontzera etorri behar zuen bikote bat ez zen agertu. Beste batean, zibilez ezkontzera etorri zen bikote bat, esanez, elizatik geroxeago ezkonduko zirela gonbidatuen diruarekin etxeko obrak ordaindu ahal izateko.

8 Herriko argazki zaharrak biltzen ikusi zaitut.

Zertarako nahi dituzu?

Nire asmoa zen gure herriko historia, ohiturak eta ezagutarazteko baliagarri izango zitzaizkigulakoan argitaratzea, baina badirudi inori ez zaiola axolarik eta hortxe daude 1.600 argazki baino gehiago. Eta beste hainbeste eskaini didate... Zertarako?

9 Honez gain, zertan zabilta edota zer planak dituzu?

Euskal Herriaren eta Lezoren historian gertatutako fenomeno bati buruzko lan bat prestatu nahian hasi gara. Aurki adieraziko dugu zer den, zeren eta hori ere oztopa lezake norbaitek.

10 Orratx! aldizkariaren azken zenbakia da hau...

Beti Lezo galtzaile •

Argazki inkesta. ANDER LEON / IÑAKI BERRIO

Politiko hurbilenak udaletxeak izaten dira, beraz Lezoko herritarren nahiak zeintzuk diren jakin nahi izan dugu

ZER ESKATUKO ZENIOKE UDALARI?**PAULA DAVILA**


Nire lana zaharrak zaintzea da, beraz, horren inguruko zerbait eskatuko nioke, baina gune berria egiten ari direnez, arlo hori konponduta geratuko dela uste dut.

**INES TOBIAS**


Aparkaleku eta berdegune gehiago. Bi daude eta biak bete-beteak, gero eta ume gehiago baitago. Babes ofizialeko etxebizitza gehiago ere bai, libreak oso garestiak dira eta.

**JULIO GOÑI**


Deus ez. Oso ongi dago dena. Inguruko herrien artean onena dela uste dut. Espaloiak eta oso zainduak daude. Ez dago ezeren beharrik.

**PILI PESTONIT**

Zalanburu edo kolunpio gehiago, daudenak zikin eta arrakatsuz daude. Errepideak konpondu eta lorategiak hobeto zaindu. Besterik ez.

**JON ELKANO**

Herria denok nahi dugu garbi ikusi, baina lehentasuna al da Kroke eta beste zenbaiten pintadak kentzea? Eta portutik ateratzen den oxidoarekin zer egin? Hori ez da ikusten gure birrikak baitituzte zabortegi gisa.

**REGINO GARCIA**

Ni neu aldatzea eskatuko nioke. 77 urte dauzkat eta gazteagoa izan nahi nuke. Ditudan gaixotasunak sendatzea, besterik gabe. Gainontzekoa ongi dago.

**LOURDES OKENDO**

Adibidez urari horrenbeste klororik ez botatzeko. Oso zapore txarra du eta batez ere usaia. Zertarako behar da kloro kantitate hain handia gero ura erabili ezin bada, batez ere baserrietan? Ura erosi egin behar izaten dut.

**ANGEL ERRASTI**

Aparkaleku gehiago jartzea. Hori da problemarik handienetakoa. Ez dago inolako lekurik eta konponbide bakarra isunak omen dira. Etxe berri asko dago eta aparkalekurik ez.

PATRI URKIZU



LEZOKO INDEPENDENTIA



IENTEAK

Trantsizioa zelako hartako garaiak oroitzuz


1975. urtea, azaroaren 20a, non zegoen Patri?

Francoren heriotza egunaren data, ezta? Ez naiz oso ongi-ongi oroitzen, baina uste dut garai hartako kontu batzuk astintzeko garaia ere iritsi dela. Batzuek trantsizioa goraiatu izan dute, beste batzuek ez zela benetako trantsiziorik izan, eta abar. Fisi-kariek esaten dutenez, bizitza continuum bat da, alegia, ez da goela bertan etenaldirik, prozesu bat dela, izakien biziraute moduko bat, eta data batzuk azpimarratzen baldin baditugu, horiek gure baitan edo gizartearenean izan duten garrantzia seinalatze-ko izaten da. Jakina, Francoren heriotza eguna denentzat egun seinalagarria izan zen, aspaldian espero eta desiratzen zen gerta-era baitzen – tortilaren iraultetari 'la vuelta a la tortilla'- bidea ireki ziezaiokena.

Egun horretan ohi bezala jaikiko nintzen seguruen. Haurra – zu- esnatu, Franco hil zen urtean jaioa baitzinen, garbitu, bibe- roia eman eta Zubitxon zegoen haurtzaindegira eraman. Gero emaztea autoz EUTGra eraman, eta ondotik Errenteriako Insti- tutura klaseak ematera. Eguerdialdean, uste dut garai hartan Alavés ostatuan bazkaltzen genuela elkarrekin Migel Anjel Ba- surko, Migel Sagües, Joxan Meoki, Isabel Mujika, institutuko beste irakasle batzuek eta nik, baina baliteke giroa ikusi nahiz Donostiako Parte Zaharrean izatea, ganbarako oroitzapenek ez banaute engainatzen. Astelena tabernan basoerdiren bat edan eta pintxoren bat jan genuelakoan nago, eta Joxe Manuel Cas- tells-ek Zuzenbide fakultatean egindakoa kontatu. Alegia, De- kanoaren bulegora joan eta Francoren fotografia bertatik kent- zeko eskatu ziotela edo. Hots, nola halako iraultza gertatzen ha- sia zen unibertsitatearen erakundeetan... Ospakizun egunak izan ziren.

Zer giro bizi zen garai hartan Lezo eta Errenteria aldean?

Esan behar dut garai hartan, alegia, 75ean, nire lehenbiziko emaztea, Elena, Komunisten Batasuna deitu talde txiki baten militantea zela, eta anaia Joxeba kartzelatik Franco hil baino egun batzuk lehenago atera berri zela. Nik, egia esan, ez dut se- kulan inongo talde politikotan militatu, eta zerbait izan banaiz, euskararen militantea izan naiz, euskaltzalea. Militantzia hitza bera ez dut oso gogoko. Nahiago dut modu apalean esan, langi- lea izan naizela batean edo bestean, eta langile amorratua euska- raren arloan, ez baitira hain erraz, saiatu denak ongi dakien be- zala, 50 liburutik gora plazaratzen. Bestalde, familia langile eta



xume bateko semea naizenez gero, betidanik langileen egoera sozialak kezkatu nau, eta edonorekiko justizia ezak ere sutu.

PNN gisa egiten nuen lan Institutuan, alegia, profesor no numero-
raio gisara, esan nahi dut, urtero kontratua herritu behar izaten
genuela, eta guk estabilitatea, iraunkortasuna nahi genuen, bai
eta ere euskara sartu Eskola Publikoetan. Erdi klandestinitatean
egiten zen borroka honek asko irakatsi zigun, noski. Bestalde,
oroitzen naiz nola ematen genituen euskarazko klaseak orduz
kanpo, doan, bai Institutuan, bai eta herriko gau eskoletan.

Ospetsuak ziren Errenteriako Asanbladak. Libururik ere atera
da gaiaren inguruan eta Lezoko gazte zenbaiten irudiak bertan
ageri dira. Bilerak Errenteriako eliza aurrean egin ezin zirenean,
pinu tartean egin ohi ziren, eta batzuetan oinez Oiartzungo ba-
soraino ere joan izan ginen greba orokorrak zirela eta.

Lezoko Gurutze Santuan ere itxialdirik izan zen, eta bertan
oroitzen naiz nola eztabaidatu zen KAS alternatiba. Aurkezlee-
tariko bat anaia Joxeba, kartzelatik atera berria. Bost urteko
epea eskaintzen zien irakasle guzietan euskaldundu zitezten. Eta
nola ni banenbilen euskarazko eskolak ematen Donostian mai-
suei, banekien ongi epea laburregia zela, aski baitzen zatiketa
bat egitea erdaldun maisuen kopurua eta bitartekoen artean.
Batzuek badirudi oso haserretu zirela nik esandako datu eta
egia haiekin. Ikusi da argi eta garbi, ordea, geroak nori eman
dion arrazoia.

Zer esan, bada, garai hartako gizarte giroaz? Uste dut oso urte
interesgarriak izan zirela, batez ere aldaketa sumatzen zelako
airean. Berrogei urtez denon gainean izan genuen harri astuna –
Francoren diktadura - derrepentean, baina ez hain derrepente-
an, haren irudia ezabatua zen, baina diktadoreak adierazi bezala
dena lotuta utzia zuen, -atado y bien atado-. 1969an Juan Carlos
I.a erregegai izendatu zuen eta 1973an Carrero Blanco estatu-
buru. Ongi korapilatuko korapilo hori askatzeko urteak beharko
ziren eta dira oraindik.

Gazteak ginen, jakina, eta ez genion ia deusi beldurrik, kantu
kantari ibiltzen ginen Errenteriako tabernetan ordu txikiak arte
eta oihurik ere ez zen falta izaten. Iraultza zen, jakina, gehien
maite genuen hitza.

Udal hauteskundeak iritsi ziren. Nola sortu zitzaizun alkate gai joateko aukera?

Ea, gauzak ordena pixka batekin azaltzen ditudan. Franko hil
eta gero, 1975-76an Juan Carlos I.a errege izendatu zuten, eta
Parlamentua osatu zen, zeinek Konstituzio bat antolatu zuen,
1978an onartua izan zena gehiengo batez. Askatasun sindikala,
Informazio Askatasuna, - garaikoak dira Garaia, Berriak eta
Punto y Hora de Euskal Herria astekariak -, Heriotza zigorra
kentzea, Dibortzioa legeztatzea... eta Udal Hauteskundeak eto-
rri ziren gero.

Egun batez Basurkoko kontatu zigun Institutuan Mutrikan herri
hautagai zerrenda bat sortzeko asmoz zebiltzala. Eta burutik pa-
satu zitzaidan, -ez bainintzen ni inongo partidutan sarturik -, zer-
bait antzekorik ere antola genezakeela Lezon, independenteen
arte. Herri ttikia zenez, ia ezagutzen genituen euskaraz eta po-
litikaz arduratzen ziren gehienak. Beraz, bildu ginen Toledo,
Ibarguren, Arizabalaga, Arretxe, beste batzuk eta ni, eta zer egin
galderari erantzunez, ekin genien herri kandidatura bat prestat-
zeko lanei. Talde politikoetan ez zegoen jendearen artean eta
euskaltzaletasuna frogatuta zeukan jendearekin ekin genion.

Prozedura gisa galdera batzuk prestatu genituen eta herriko el-
karte guzietan pasa erantzun zitzaizkizun zehazki zeintzuk ziren be-
raientzat herriko arazo nagusiak eta soluziobideak. Haiek bidali-
tako erantzunekin osatu genuen hauteskundeetako programa.
Ondoren kartel batzuk marraztu zituen Arretxek eta nik bertso-
tan eman edo jaso herriaren nahiak. Biltzar batean, gogoratzen
naiz ongi, galdetu zenean nor joan nahi zuen zerrenda-buru,
alkate gai, adinez eta adimenez hornituena hala ikusten nuela
eta Joxe Manuel Toledo proposatu nuen. Baina biltzar ireki har-
tan hamahiru izen botatuenean artean nirea zegoen lehenbizi eta
ez nuen onartzerik baizik izan. Zer erremedio!

Hogeita zazpi mila pezeta kostatu zitzaizun kartelak eta progra-
mak inprimatzea, alegia, gure asmoen eta ideien zabalkundea.
Gero atera genituen zinegotzien araberrako diruaz, beste hain-
beste zena, afori bat egin Oriotarran eta kito. Egia esan, ez zuten
politika iragarleek batere asmatu gurean, zeren oroitzen naiz no-
la zioen Unidad, El Diario de la Tarde, Donostiako egunkariak
gehienez zinegotzi bat aterako genuela.

Oposizioan zeuden alderdiekin zer moduzko harremanak izan zenituzten?

Garai haiez ongi oroitzen banaiz, PNVk bost hautetsi izan zi-
tuen, Lezoko Independentiak taldeak lau, Euskadiko Ezke-
rrak hiru, eta Mugimendu Komunistak bat. Alkatea hautatzerako-
an, zortzi bosten kontra gelditu zen. Nire alkate orde gisa gel-
ditu zen orain berriki alkate hautatua izan den Pello Garbizu.

Ilusio handiz heldu genion betebeharrari eta nik beti argi izan
nuen herriko seme-alaba guzientan alkate izan nahi nuela, eta ho-
rrela saiatu nintzen denen eskaerak – legezkoak baziren – eta
Udalak ahalmenik bazuen, bide onez eramaten. Komisio guzietan
garai hartan irekiak ziren, eta Plenoak ere bai.

Euskara alor guzietan erabili nahi genuen eta administrazioa
ere eraman nahi genuenez gero, itzultzaile bat hautatu genuen,
Boletin Ofizialean agertu zen lehena izan zen gainera, oker ez
banabil.

Zer egin zenuten lau urte haietan?

Ahalegin guzietan egin genituela aitortu behar dut. Gainera, Insti-
tutuan lanean jarraitzen nuen. Epe honetan atera ziren Insti-
tutuetarako Euskarazko Lehen Katedrak, eta epai-mahai buru
Koldo Mitxelena zelarik, hamar katedradun berrien artean bat
ni gertatu nintzen. Nire bibliografiari begirada ematerakoan,
garbi nabarmentzen da 1979-1983 alkate izan nintzeneko epea
ez zela oso emankor izan idazki alorrean. Kontent naiz, ordea,
aurrera eraman genituen lanekin. Hauek burutzea ez da batere
gauza erraza izaten, makina bat buruko-min eragiten dute eta
gau frankotan valium bat baino gehiago hartua naiz loak mende-
ratuko baninduen.

Lan ugari aurrera eramán genituen, baina batez ere hiru lanek pozten naute bereziki.

Bat. Altamirako etxeak eta eskola berriak. Kontuan hartu behar da etxeak erosi nahi zituenak milioi eta erdi pezetatik bi milioi-ara arteko kopurua ordaindu behar zuela, neurriaren arabera. Ene uste apalez, egun, gazteriantzat arazo garrantzitsuenetakoa hori bera dela, eta guk burutu genuen bidea ez dela ikuspegi sozial batetik begiratuta desbideratua.

Bi. Herri haurtzaindegia. Nahiko borroka izan genuen hau aurrera ateratzeko, bai gure taldekoen zenbaiten ideia atzerakoiak zirela eta bai besteenak zirela eta. Emakume langilearen askatasunarentzat eta haurra gizartean txertatzeko uste genuen, eta uste dugu orain ere nahitaezkoak direla haurtzaindegi merke eta ongi zainduak.

Hiru. Markesaneke parkea. Frontoia eta goiko plazaren zabaltze gunez joko genuen eta hamaika bilera eta eztabaida burutu ondotik Acha eta Txapa fabrikako nagusiekin eta abokatuekin lortu genuen herriarentzat izan zedin. Garaiko arkitektoa zen Garbizu jaunak burutu zuen modu finean egitasmoa. Bertan kokatu genuen, halaber, benetan ederra gelditu den Burdinazko Aingura Handia, kaian abandonatuta aurkitu zuena eta kontratista batetik doan ekarri ziguna. Tamalez ez da behar adina erabiltzen parkea, eta gureganatu genuen New-Yorkeko parkeetako ideia hura, hots, aisialdian gazteak eta zaharrak bertan xakean jolastea oso gutxitan ikusi dut gauzatua.

Tejeroren estatu-kolpea gertatu zenean, non zinen?


Errenterriko gimnasioan harrapatu ninduen. Bertan zeuden beste zinegotzi batzuekin hitz egin genuen frontoi txikian eta saunan ginelarik. Espainia Europan sartzeko bidean zegoelarik honen ez zezakeela horrelakorik onar eta honelakoak aipatu genituen. Erreginak bazuela esperientzia aski bere anaiarekin eta militarrek hau tratatu zuten moduarekin... Egoeraren larritasunaz jabeturik ginen, baina hainbestetan izan ginen momentu zailetan, non hirigintzako bilera ohi bezala hasi baikenuen. Asotelehena zen eta arratsaldeko zortzi eta erdjetarako, kezkaturik oso, bilera utzi eta basoerdi bat edatera sartu ginen Aizpeara. Gerora jakin genuen batzuk mugaz bestaldera pasatuak zirela. Guk eguneroko lanari eutsi genion, normaltasun demokratikoa gure helburuen alde borrokatzeko biderik zuzenena zelakoan.



Politika utzia duzu geroztik. Zergatik?

Irakaskintzan, kultura arloan lan egitea, zure hautua ematea edo ez ematea, ez al da bada politika egitea? Udaletxean bizitakoa esperientzia aberasgarria izan arren, eta alkatearen ikuspegitik gauza asko ikusi eta ikasi arren, ohartu nintzen gure alkatezako azken garaian politika tamalez beste bide batzuk hartzen ari zela.

Bat alkate denean, heriotza mehatxuak jaso dituenen, eta proposatzen dituen egitasmoak aurrera eramateko bere botoarekin bakarrik gertatzen denean, argi eta garbi dago utzi egin behar diola bere eserlekua gauzak hobeto egin ditzakeenari. Politika zuk ez, baizik berak zu utzi zaituela esan dezakezu. Dena den, karguetarako une batzuk badira, eta beste batzuk azterketa lasaigorako. Lau urte alkate, lau urte Euskal Idazleen Elkarterako zuzendari, sei urte Eusko Ikaskuntzako Hizkuntza eta Literaturako sail-buru. Ezta gutxi, ezta? Eta politika grinak hor bizirik dirauen arren, alegia, gizartea hobetzeko ahaleginetan saiatzeko beti prest egon arren, tristura eta etsipena besterik ez dit eragiten gaurko politikari askoren jokabideak •



LEZO ETA HO

Lezo edo hobeto esanda, Guillermo de Lazonek eta bere lagunek zuten lurraldea, Hondarribiari egokitu zitzaion 1203. urteaz geroztik, Alfonso VIII.a Gaztelako erregeak Carta-Pueblan eman zionetik. Agiri honek esku-bide batzuk eman zizkion bai Lezoren gainean, baita Irun eta Pasaiaren gainean ere.



Ez dirudi, ailegatu zaigun dokumentazioaren arabera, Lezo lurralde liskartua izan zenik. Pasaiak eta Irunek, ordea, ikaragarritzko liskarrak izan zituzten Hondarribiarekin. Lezok itsu-itsuan segitu zituen "metropolia"ren aginduak kontrako hitzik esan gabe.

Hala, 1621ean ituna sinatu zen, gudarik gertatuz gero, herri bakoitzak zenbat gizon bidali behar zituen zehazteko. Pasaiak eta Irunek ele egiteak aurkeztu zituzten, Lezok, berriz, agindutakoa bete zuen eta kito. Dena den, modu partikularrean bazen ere, bi lezoarrek uko egin zioten Carlos II.a erregeari ohore eta harrera egitera joateari. Hala ere, gai-nontzeko herritarrak han azaldu ziren eta bi lezoarren portaera salbuespentzat har dezakegu, menpekotasun ibilbide batean.

Bitxikeria moduan, Lezok 1821 eta 1823 artean (hiru urteko liberala) udal propioa izan zuela esan dezakegu, baina geroago Hondarribiaren baitan egotera bueltatu zen. Zaila da geroztik dokumentu gehi-ago aurkitzea, baina badirudi elkarlan eta adostasun hori 1827. urtean hasi zela hausten Urte horretan Lezo kexatzen hasi zen, ez bakarrik bidali beharreko gizon kopurua zela eta, baizik eta armadako agintari kopurua ere ttikia zuelako. Negoziazio batzuen ondorik, tartean matematika eta aritmetika zeudelarik, adostasun batera ailegatu ziren eta Lezok bost aginte postu izan zituen. Dagoeneko formak aldatuta zeuden, arrazonamendua, negoziazioa eta mate-

AUZOK

HONDARRIBIA:



matika erabiltzen ziren erabakiak hartzeko. Mende batzuk lehenago erregearen boterea, jaungoikoaren hitza edota armadaren indarra erabiliko zituzketen. Moduak aldatuta bai baina, aurreko egoerari eusten zitzaion. Harrigarria bada ere, gutxi, oso gutxi aldatu zen 1203tik 1833 arte, Fernando VII.a hil zen urtea, hain zuzen ere.

Dakigunez, errege honen heriotzarekin batera, guda karlista zela-koa hasi zen. Alde batetik, liberalak edo isabelinoak zeuden eta bestetik, tradizionalistak edo karlistak. Urte horretan Lezok udal araudia onartu zuen eta ontzat eman zituen erregina bera izan zen, besterik gabe. Honek gauza bat argitzen digu, hots, Hondarribiarekiko zuen menpekotasunetik aske geratu zela. Dena den, urte horretan bertan Hondarribiako alkateak protesta egin zuen, bere ustez Lezoko ordezkarietan karlista gehiegi zeuden eta. Ikaragarritzko kontraesana dugu hemen. Ustezko libera-

lek, erregimen zaharra kentzearen aldekoek, Sistema feudalean bezala, Lezori Hondarribiaren mendean eutsi nahi zioten. Lezoko karlistek, ordea, ordena eta tradizioaren aldekoak zirenak, lotura feudalak hautsi nahi zituzten Udal propioa lortzeko asmoz.

Erregina berriak hiri armadaxoak sortzeko agindua eman zuen, bere interesak defendatzeko asmoz. Horretarako, 2000 biztanle baino gehiagoko herri guneei oharra helarazi zion. Bertan, antolaketak militar berriak osatu ziren eta feudalismoaren azken aztarnak behin betiko desagertu ziren, Carta-Pueblaren eragina behin betiko deuseztatuz. Harrigarria bada ere, feudalismoak bizirik iraun zuen gure baitan XIX. mendearen erdialdera arte eta bere desagertzearekin batera, Lezok Hondarribiarekin zituen lotura legalak ere hautsi egin ziren. Geroztik, urtebetetzea egun berean ospatzen duten bi auzokide gara. 800 zorion Lezo! 800 zorion Hondarribia! •

IDE BAINO GEHIAGO

HONDARRIBIKO HISTORIAN SARTU GINTUENA

Azken hilabete hauetan askotan entzun dugun hitza da Carta-Puebla. Bere izenean gauza asko ospatu dira herrian. Baina ba al dakigu zehazki zer den? Zergatik izan zen hain garrantzitsua? Artikulu honetan Carta-Pueblaren esanahia eta eragina azaltzen saiatuko gara.

Historia eta agiri idatziak oso lotuta daude. Bereiz ezinak direla **H**esango nuke nik. Noiz sartzen da gizarte bat Historian? Ba zientziak argi eta garbi dio lehenengo dokumentu idatziak aurkitzen direnean. Mesopotamiako zibilizazioak K.a. 4000. urtean sartu ziren Historian eta ia ziur esan dezakegu gaur egungo Amazonas oihane-ko tribu batzuk oraindik historiaurrean daudela. Hori baino lehenagoko garaia Historia izena ez emateak ez du, esan nahi bizitzarik ez zegoenik, horrek beste izen bat daukala baizik, lehen aipatu dugun historiaurrea hain zuzen ere. Carta-Pueblak Lezoko herriaren historiaren hasiera esan nahi du, eta efemeride gisa hartu beharreko gertaera da, besterik gabe, edo guk hartu dugun gisara, gure iragan sakontzeko aitzakiatzat.

Gaztelako Alfonso VIII.ak Nafarroako Antso IV.ak eraikitako Nova

Presentibus, et futuris notum sit, quod ego Aldefonssus, Dei gratia rex Castelle, et Toleti, una cum uxore mea Allenor, et cum filio meo Fernando, dono et concedo uobis concilio de Fonterabia presentis et futuris forum de Sancto Sebastiano perpetuo habendu. Dono etiam uobis et concedo istos terminos subscriptos: Videlicet de ribo de Oharçun usque ad Ribum de Fonterabia, et de pena de Aia usque ad mare, et de Lesaca usque ad mare, et de Belfa usque ad mare, et terminum de Yrun cum omnibus inde habitantibus. Et dono uobis Guillelmun de Laçon et socios suos, ut sint vestri vicjini. Et concedo vobis illum portum de Asturiaga, quod sit semper uester ut tali tamen pacto quod uno quoque anno detis pro illo portu quinquaginta marbotinos. Et mando firmiter quot in omnibus uestris terminis ullus sit ausus ganatos ad pascedum mittere nisi cum vestra uoluntate. Et sit absoluti amboi pedagio in toto regno meo. Si quis uero hanc carta infringiere uel diminuerre presumpserit, yram die oimpotentis planarie incurrat, et regie parti centum aureos in cauto persoualt, et dapnum super hoc uobis illatum duplicatum restituat. Ffacta carta apud Palencia XXVIII die aprilis era M.CC.XLI. Et ego rex et reginaris in Castella et Tolletto hanc carta, quam fieri iusi manu propria, roboro et confirmo.

"Carta Puebla"ren jatorrizko testua latinez

Victoria (Gasteiz) konkistatu zuen 1200. urtean. Honekin batera Nafarroari zegozkion beste eskualde batzuk ere eskuratu zituen, haien artean gurea. Konkista honen ondoren, Gaztelako erregeak, Sancto Sebastianoren Nafarroako Forua berretsi eta lehendabiziko aldiz, Donostia ez zen Gipuzkoako herri bati eman zion. Hala gauzatu zen 1203. urtean "Carta Puebla izenez ezagutzen dugun dokumentu hori, eta Lezo, herri gune gisa bazeneko lehenengo idatzi probatza hartu duguna. Baina zer da Carta-Puebla bat? Zein da bere esanahia?


Carta-Puebla edo euskaratu den bezala Hiri-Gutuna, jaun edo errege agiria zen; bere helburua eta edukia hiribildu bat sortzea zen eta biztanleria berria finkatzen zuen. Biztanle eta erregearen arteko ituna dela esan dezakegu. Kontratu honen bidez bai erregeak, bai biztanleek zenbait pribilejio eta eskubide izateko aukera zuten.

Hondarribiako jatorrizko gutuna ez da gure denboretaraino ailegatu, baina geroago zenbait erregeek egindako lekualdatze eta egiaztagiriei esker ezagutu dugu, edukiak zeintzuk ziren ikasi dugu eta zer hizkuntzatan idatziarik zegoen antzematea ere izan dugu. Garai hartan garrantzizko beste edozein agiri bezala, latinez eta larru paperean idatzia izan zen. Hala ere, XVII. mendearen hasieratik aurrera Hiri-Gutuna gaztelaniara pasa zuten eta hori izan zen erabilitako bertsioa.

Lezok 800 eguna irailean ospatu bagenuen ere, mendeurrenaren egun zehatza apirilaren 18a izan zen, egun horretan argitaratu baitzuen Gaztelako Alfonso VIII.ak Hiri-Gutuna. Batez ere, hiru arrazoi izan ziren Gaztelako erregea Hondarribiako biztanleei agiri hau ematera bultzatu zutenak: Bere Erresumako eremu guztietan biztanleak izateko interesa, Bidasoan zehar Frantziarako pasabidea bere mendean edukitzeko nahia eta Atlantikoko Europarekin zegoen merkataritza kontrolatu ahal izateko leku bat ezartzea.

Bertako biztanleei eman zitzaizkien berariazko eskubideei dagokienez, oso zabalak ziren lurraldeak aitortzen zitzaizkien: Oiartzundik Bidasoara artekoak, Lesakatik itsasora, Beratik Itsasora, Irungo eskumena eta guri benetan interesatzen zaiguna, Guillermo Lazon eta bere kideek hartutako lurraldeak, hau da, Pasai Donibane eta Lezo.


"CARTA PUEBLA"



Donostiako Foruan jasota zegoen beste eskubide bat onartzen zituzaien lur eremuko honetako biztanleei. Foru hau merkataritzako eta itsas izaerako forua zen, XIII. mendean itsasertzeko hiribilduei soilik eman zitzaiena. Bere eraginpean hartzen zituen hiribilduek merkataritza eskubideari, justizia administrazioari eta udal gobernuari eragiten zieten eskumenak zeuzkaten.

Eskumen hauen guztien truke, erregeak hiru ahalmen gordetzen zituen. Bat, toki honetan bizi ziren biztanle guztiak bere zerbitzupeko izatera pasatzea. Beste bat, hiribilduan "preboste zeritzon" ordezkari bat izatea. Hirugarrena 50 maravediko zerga kobratzea Asturiagako kaia izateagatik.

Hau da historian sartu gintuen agiria. Herriaren historian ez du aparteko garrantzirik izan, baina ezin dugu ahaztu Lezoko lurretan herri gune bat zegoeneko lehenengo froga idatziaren mendeurrena izan dela 2003ko urte honetan ospatu berri duguna •



Alfonso VIII.aren hilobia

IRUNDIK DONOSTIARAKO GERRA-BIDEAN, LEZO

1936ko irailak 13



Gerrak gertaera politikotzat har daitezkeen neurrian, ugari ezagutu eta pairatu ditu Lezok. Kasu gehienetan, herriaren kokagune geografikoak zeharo baldintzaturiko egoeratan gainera, Frantzia eta Espainiako estatuen arteko mugatik hurbil egoteak, Pasaia badiaren ertzean egoteak, Donostiatik hurbil egoteak, Nafarroatik ere hurbil egoteak beti izan dute eragina gerra baten edo bestearen sorreran edota bilakaeran.

Gerra guzien artean, herri oroimenak bizien duena 1936-1939 urte-
en artean gertatutakoa da dudarik gabe. Espainiako guda zibila
esaten diogun hura. Gerrate hura ezagutu zuen jendea oraindik bizi
da herrian eta euren ahotik entzundako gertaera eta pasadizoak laz-
garriak eta gogorak dira benetan.

1936ko uztailaren 18an Espainiako armadako buru batzuk II. Erre-
publikaren aurka matxinatu ziren estatu kolpea eman asmoz. Nafa-
rroako armada buruak -Mola jeneralaren agindupean- eta Afrikako

lur kolonizatuetan zeudenak matxinatu ziren besteak beste. Ez zu-
ten, ordea, hasiera batean uste zuten babesik izan beste lurraldeeta-
ko armada buruen, karabineroen eta Guardia Zibilen aldetik, eta es-
tatu kolpe azkar gisa pentsatuta zegoena hiru urteko gerra zibil
bihurtu zen harik eta faxista matxinatuek Madril hartu zuten arte.

Lezok egia esan altxamendua gertatu eta gutxira entzun zituen le-
hen guda hotsak, izan ere, uztailaren 27rako hasi ziren Nafarroako
Erreketeak eta militarrek Gipuzkoako muga osoan erasoaldiak egi-

ten eta herrialdean sartzen. Beorlegi koronelak Beran zuen bere posizioa eta handik Irun hartzeko asmoz Enderlatsara abiatu zen. Bitarte horretan Gipuzkoa eta Nafarroaren muga alde horretan miliziano talde tiki batzuk zebiltzan, CNT eta EAE-ANVkoak -Kepa Ordoki irundarra tardean-, eta Enderlatsako zubia leherrarazteaz gain, aurre egin zieten matxinatuei. Beorlegik zailtasunak sumatuta, atzera egin behar izan zuen Lesakara, eta handik Oiartzunerako bidea hartu zuen Ortiz de Zarate koronelarekin. Oiartzun berehala hartu zuten eta Erreteriarra ere lehenengo sartzea orduan egin zuten. Erreteriar aurkako erresistentzia handia izan zuten eta Irun aldera egin zuten hura hartzeko indarrak bilduz.

Erreteriarra eginiko lehenengo sarraldi horretan papeleraren atzetik barrera Lezoko lurretan ibili ziren Darieta baserriaren inguruan. Herriko kanpandoretik tiro egin zienik ere izan zen, baita haiek erantzun ere. Etxetxo baserriko jauna aziendentzako bazka bilatzen joana zen bitartean, ama 24, 21 eta 17 urteko hiru semeekin, goardia asaltokoak sumatu eta beste baserri batera ihes egiteko asmotan abiatu omen zen. Bidean goardia asaltokoek geratu eta derri gorrez erreklutatu nahi izan zituzten hiru senideak. Uko egin zioten faxistekin joateari eta berehala tirokatu zituzten bide bazterrean. Ama semeen hilketa galarazten saiatu zen eta hura aihotzez hil zuten. Lekuko batzuen esanetan mutil horietakoren batek gerrikoan marfilezko ikurrintxo bat omen zeraman eta tiro bat zuen propio haren erdi-erdian emana. Felix zakar biltzaileak gurdian hartu eta Juana-enea parean, kanposanturako bidean, geldialdia egin zuenean, ikusi omen zioten hori lekukoek. Izugarritzko sarraskia egin omen zuten hiru mutil haiekin tirokatu ezezik, labanaz pasa baitzieten gerrialdea.

Berrogeita bost egun iraun zuen Irun hartzeko erasoaldiak eta egun horietan guzietan hegazkin "trimotorrak" agertzen omen ziren goizean goiz izugarritzko zaratarekin Aiako Harriaren atzetik. Abuztuan zehar bomba mordoa jaurti zuten bai itsasotik, España, Velasco eta Almirante Cervera korazatu faxistek, bai airetik hegazkinen bidez. Bomba horietako batek Felix zakar biltzailea eta bere iloba Esperantxa hil zituen Donibane kaleko "Centro Republicano"aren aurrean hizketan zeudela. Bomba berak beste neskatxa bat ere zauritu zuen Felixen zaldia eta gurdia txikitzeaz gainera. Beste bonbaren batek goiko eliza jo zuen eta kalte tikiak eragin bazion ere, Don Luis apaizak urte luzez eduki omen zuen konpondu gabe eta bomba ere gordeta "Bomba, aviación roja" idazkia erantsita. Beste bomba bat Alai etxeren ondoko baratzen erori eta lehertu zen, metrailak etxeari zulo ugari egin ziolarik.

Irailaren 5ean Irun erori eta miliziano anarkistek karrika garrantzitsuenei su eman zieten Hondarribiatik edo Behobitik Hendaiara ihes egin aurretik. Handik aurrerako bidea, Donostia helburu, erraz egin zuten faxistek. Jaizkibelen eta Gaintxurizketako kaxkoxo miliziano talde batzuek lubakiak egin eta egun batzuetan gogor egitea lortu bazuten ere (herriko lurretan hiru miliziano hil ziren erresistentzia horretan), irailaren 13ko goizean Lezon sartu ziren faxistak bide guzia libre zutela gainera.

1936ko irailaren 13 igandea zen, Santakruz bezpera, herriko jaiak beraz. Goizeko seietan izaten zen orduan meza eta garai hartako Don Luis Garmendia bikarioak aldarretik dei egin zien eliztarrei faxistei ongi etorria egitera Gaintxurizketara joateko. Erreketean aldeko aldarriak egin zituen sermoian eta mezaren ondotik kasuilarik dotoreena jantzi, gurutzeta eta estandarteak hartu eta hantxe abiatu omen zen herriko agintari batzuekin Gaintxurizketa aldera. Mutiko mordoa eraman omen zuten atzetik. Txatxamendiko kaxkoraino "¡Viva Cristo Rey!" eta "¡Vivan los requetés de Navarra!" oihuka joan omen ziren. Txatxamendi parean erreke-


te batzuekin egin zuten topo eta buruekin hitz egin ondotik ituna egin zuten. Herrian Frente Popularrekorik eta abertzalerik ez zegoe-la, alde egin zutela esan zieten faxistei eta haiek, badaezpada, mutikoak bahituta hartu zituzten eta Gaintxurizketako kaxkora eraman zituzten, Arriaundi ingurura. Egia zela ikusten baldin bazuten, haurrak askatuko zituztela. Azpikoa baldin bazen, berriz, igarriko ziotela. Hiru bat orduan eduki omen zituzten haurrak han esperoan, ogi zuria eta latako sardinak janez. Irunalderik heldu ziren tropak Gaintxurizketatik herrirako bidea egin zuten harro-harro eta tirorik batere gabe sartu ziren herrian. Euforiaren euforiaz ziren matxinatuak, Donostiarako bidea irekita ikusi baitzuten.

Erreketek Gaintxurizketatik herrira ailegatu bitartean, abertzaleek bi elizak zaindu zituzten, esana baitzuten anarkistek, alde egin aurretik dinamitatu eta erreko zituztela. Eta prestatuta ere hala omen zuten, metxak eta gasolina ontziak dinamita kartutxoekin Polentzarenre baserriaren arto zelaletan. Abertzaleek erreketak galarazi eta herriko kaian baporea hartu zuten Getariara ihes eginez.

Faxisten tropak herrira oihuka eta pozaren pozez sartu ziren eta berehala Tiburtzio Sarasolaz galde egin zuten hura alkate izendatzeko. Udaletxean sartu eta bandera errepublikarra Alcalá-Zamora eta Indalecio Prietoren koadroak balkoitik behera bota zituzten plazaren erdian errez. Ospakizun giro horretan faxistek tiro egiten omen zuten noranahi eta horietako tiro batek 8 urteko Joxe Mari Larreta Intxaurrendieta larri zauritu zuen. Haurra hilaren 15ean hil zen. Herriarrei derri gorrez desfila arazi, gaztelaniaz hitz egiteko agindu eta etxetan sartu ziren gauza mordoa errekiatuz.

Herrian bi egun egon omen ziren tropa batzuk, baina gehienek Donostiarako bidea hartu zuten Gipuzkoako hiriburua ere egun berean erori zelarik. Ondoko hilabeteetako errepresioaren ondorioz hiru herritar fusilatu zituzten; bat herrian bertan, bestea Iruñean eta azkena Donostian. Datu hauen arabera beraz, 13 herritar hil ziren 36ko gerran.

Gerrateak 40 urteko aro ilun eta ankerra ekarri zuen Lezorentzat eta Euskal Herriarentzat, eta era batera edo bestera, haren ondorioak jasaten ari gaude oraindik ere •



UDAL HAUTESKUNDEAK

Datua baino ez bada ere, hona hemen 1979tik aurrera herrian egin diren Udal Hauteskundearen emaitzak. Boto kopuruaz gain, parentesi artean alderdi bakoitzak lortu zituen zinegotziak daude. Análisisa zuie dagokizue

Iturria: www1.euskadi.net

1979

ZENTSUA	EAJ	ID. LEZO 79	EE	EMK-OIC	PCE-EPK	ZURIAK	BALIOGABEAK
4109	776 (5)	566 (4)	477 (3)	147 (1)	73 (0)	15	44

1983

ZENTSUA	EAJ	HB	PSE-PSOE	EE	ZURIAK	BALIOGABEAK
3760	754 (4)	704 (4)	566 (3)	304 (2)	10	20

1987

ZENTSUA	HB	EA	PSE-PSOE	EE	EAJ	ZURIAK	BALIOGABEAK
3964	1161 (6)	616 (3)	460 (2)	322 (1)	181 (1)	21	31

1991

ZENTSUA	HB	EAJ'	EA	PSE-PSOE	EE	ZURIAK	BALIOGABEAK
4120	1052 (6)	399 (2)	391 (2)	383 (2)	250 (1)	21	17

1995

ZENTSUA	HB	EAJ	EA	PSE-EE	IU-EB	PP	ZURIAK	BALIOGABEAK
4396	1168 (7)	477 (2)	404 (2)	364 (2)	154 (0)	147 (0)	45	30


1999

ZENTSUA	EH	EAJ-EA	PSE-EE	PP	IU-EB	ZURIAK	BALIOGABEAK
4842	1466 (7)	753 (4)	404 (2)	186 (0)	111 (0)	38	32

2003

ZENTSUA	EAJ-EA	PSE-EE	IU-EB	PP	ZURIAK	BALIOGABEAK
4120	1091 (8)	411 (3)	204 (1)	186 (1)	55	1083

Ze berri?



EUSKARAREN MUGAK

Lezo, egun, Gipuzkoako herrialdekoa dela ezin da ukatu. Administratiboki bederen. Baina hizkuntzari erreparatzen badiogu errealitatea bestelakoa da. Lezoko hastapenetako biztanleriarengan hiru giza talde haundik hartu zuten parte: baskoiek (lehenengoa eta ugariena), barduliarrek eta gaskoiek. Bi lehenengo giza taldeak euskaldunak ziren, baina euskalki ezberdinetakoak, baskoiak egungo goinafarreraren tankerako euskalkian mintzatzen ziren bitartean, barduliarrek egungo gipuzkoarraren tankerako euskalkian mintzo baitziren. Honela izaki, Lezoko euskara beti goinafarreraren barruan sailkatua izan da, are zehatzago, Iparraldeko (edo Gipuzkoako) goinafarrera izeneko azpieuskalkian. Talde berean sartuta daude aldameneko herrietan Irun, Hondarribia eta Oiartzunen

alegia, hitz egiten diren euskarak. Errenterian eta Pasaian, garai bateko barduliarren lurak izaki, gipuzkeraz mintzo dira. Lezorekin mugatiar diren bi herri hauen euskarak bere eragina eduki du ere Lezon hitz egiten den euskararen baitan, Lezoko goinafarrerari gipuzkoar kutsu eta doinua dariolarik.

ITSASARMADA GARAIEZINA

1668. urtean Espainiako Felipe II.a erregeak, Ingalaterra konkistatzeko asmoz gero "Itsasarmada Garaiezina" goitzenaz bataiatu zutena bidali zuen. Izugarria zen, eta bertan, euskaldunek, espainiar koroarekin zuten hitzarmena zela eta, Bizkaiko eta Gipuzkoako flotak bidali zituzten. Itsasarmadaren porrota ikaragarria izan zen, eta hildakoak oso ugari. Lezok sei gizon galdu zituen: Joan Zabalaga, Migel Iñurrutzu, Martin Aurella,

Hernando Araneder, Joanes Joanmartindegikoa (Gaintxurizketan dagoen izen bereko baserriko semea) eta Tomas Apaizartza (izen bera daraman gaintxurizketar baserrikoa). Sei heriotz hauen ondorioz zenbait lagun gelditu ziren pobrezian, inolako diru iturri edo sostengurik gabe: alargun bat, bi umezurtz, lau guraso edadetu eta zehaztu gabeko bi senide.

ZALANTZA ARRAZOINGARRIAK

Betidanik sinestu izan dugu Guillermo de Lazon eta Carta-Pueblak Lezo herriari egiten ziotela aipamen. Baina pixka bat ikertuz gero, zalantza batzuk sortu zaizkigu. 1988ko urriaren 16an sinadurarik gabeko artikulu bat azaldu zen "Vivir la Bahía" aldizkarian. Bertan Lazon eta Lezo izenen arteko antzekotasuna onartu arren, "D. Serapio Mugica habla de los terrenos designados con el nombre de lezones o juncuales por lo que el término

bien pudiera hacer referencia a la ría del Bidasoa más próxima a Fuenterrabía en donde podía vivir en 1203 Guillermo con sus socios". Honez gain, Luis de Urantzuk "identifica la palabra lezón con la parte alta de la defensa o talud que impide el agua a los juncales o tierras bajas ganadas al río, siendo esta una palabra de uso secular en la ría del Bidasoa". Honen arabera Lazon hitza gaur egun Irungo Pinar auzoari legokioke, lehen Urantzuk eta lehenago Lazon zelarik. Eta hori egia balitz? Eta zergatik ez? Baliteke Guillemmori emandako lurrik ez izatea gaurko Lezo herrikoak, Irun aldeko beste Lazon izeneko horiek baizik. Hauxe horrela balitz, Guillermo Lazongo ez litzateke Lezo herriaren sortzailea, eta orain arteko lezoar kronika guztiak oker leudeke(...). Dena den, biharko historiagileek izango dute gai honi buruzko azken hitza. Bitartean, zain egon edo datu berriak bilatu, besterik ezin dugu egin.



KARLISTADAK

B i gudate karlistetan Lezok parte handia hartu zuen karlisten alde. Familia guzietatik abiatu ziren mendietara. Eta bi gudateak galdu zirenez, asko eta asko izan ziren zapalketaren azpian eroritako lezoarrak. Anekdotak gisa aipa dezagun Santa Kruz apaizaren partidakoa zen Oilarra izeneko batek arma zulo bat zeukala Jaizkibeletako leku ezkutu batean. 1873ko urtarrilaren 13an Joxe Mari Olaizola, Joxe Mari Lopetegui, Frantzisko Salaberria eta Joxe Inaxio Garmendia lezoarrak preso eraman zituzten Donostiara karlisten aldekoak zirela argudiatuz. Badirudi plazako tabernan muturra berotuta "Gora Carlos VII.a !" oihukatu zutela. Darietako gotorlekutik liberalek makina bat aldiz bonbardeatu zituzten bai Errenteria, bai Lezo.

1875eko azaroaren 10ean eta 11n oso borrokaldi gogorak izan ziren Lezon bi taldekoen artean. Bukatzeko aipatu beharra dago galtzaileen zenbait etxe eta ondasun enbargatuak eta enkante publikoan salduak izan zirela, beraien artean Patxillaborda, Borda, Babilonia, Lopene eta Sagasti baserriak.

LEZO FRANTSES ETA ESPAINOLEN ARTEKO GERRETAN


L ezo beti egon da frantses eta espainolen interesen arteko borroka-eremuan. 1476an, esate baterako, frantsesek Oiartzun, Errenteria eta Lezo erre zituzten, eta zenbait urte

beranduago, Frantziako Louis XII.aren garaietan, iheska zihuan Borbongo Dukeak suntsiketa berria egin zuen Lezoko etxeak eta baserriak errez. XVI. mendearen

egoera izugarri korapilatu zen, Espainiak Nafarroa konkistatzeko antolatutako gerra sutsu eta ankerren ondorioz.

1521ean tropa nafarrek Hondarribia hartu zuten. Barruan baziren hondarribiar leialak (lezoar franko ere bai, segur aski) baina espainolen aldeko 500-800 hondarribitar inguru Lezora etorri ziren euren udaletxe hondarribitarra lezoar lurretan antolatzeko asmoz. Gizon hauek, eta Lezon zituzten aldekoak izan ziren 1522ko ekainaren 30ean Aldabe mendian, San Martzialeko gatazkan, espainiarrei laguntzen, nafar-frantses armadaren aurka parte hartu zuten gipuzkoarretatik batzuk. Lezon babesturik egon ziren hondarribitar espainazaleak espainiar armadak hiria berriro okupatu zuen arte. 1638ko uztailaren lehen egunetan, Condé printze-mariskal frantsesaren tropek Lezo hartu zuten, eta bertan egon ziren espainiar tropak abuztuaren erdialdean iritsi ziren arte. Bai batzuek eta bai besteek birrindu, suntsitu eta lapurtu egin zuten Lezon eta bailara osoan, eta XVIII. mendean gauza bera gertatu zen, herria bi potentzia nagusien arteko liskarren eskenatokia izanik. 1808. urtean frantsesak Espainiako nagusi bihurtu





ziren. Napoleonen aldeko euskaldun asko zeuden. Horrela, 1811ko uztailaren 7an, espainiar infanteria eta zalditeriaren brigante batzuk Lezon sartu ziren zaldiak, alkandorak, ogia, haragia eta ardoa eskatuz. Herriko alkateak ezetza eman zien, eta orduan briganteak, alkatea preso harturik, plazan zegoen taberna batera sartu ziren, bertan harrapatzen zuten guztia beraietzako errequisatuz. Bertan lezoar batzuk mozkorturik omen zeuden. Pasadizo honi buruz gehiago jakin nahi izanez gero, irakur ezazue Lander Zurutuzaren "Frantsesak,


briganteak eta Placido de Urrestarazuren mozkorraldia" artikulua Lezo aldizkariaren 7. zenbakian. Garai gorriak izan ziren horiek eta Espainia eta Frantziaren arteko gudaldiek egoera hori okertu baino ez zuten egin. Lapurretak, suteak, hilketak edota mehatxuak izan zen bi potentzien arteko liskarretatik Lezoko herriak atera zuena.

9000 URTE

Hasieran 5.000 urte inguru Hizango zituela esan bazen ere, azken ikerketaren arabera, Karbono 14 tartean dagoelarik, 9.000 urte izango lituzke Jaizkibel mendiaren magaletan aurkitutako gizaki hezurdurak. Hil zenean, 30 eta 40 urte artean zituen eta arraina eta lapak ziren bere dieta nagusia. Euskal

Herriko giza arrastorik zaharrena da 2003ko martxoan aurkitutako aztarnategi honetakoa. Aranzadi Zientzia Elkarrekin lanen ardura hartu du eta Holandako Groningengo Unibertsitateko laborategietan egin dira Jaizkibeletako gizona denboran kokatzeko lanak. Ikerketak zabalik dirau, baina aztarnategiaren kokapen zehatza ez dute aditza eman ziurtasun arrazoiak direla medio. Hori dela eta J3 izenarekin ezagutzen da toki hau. Gure lur hauen gainean gizakiak aspaldi ibili zirela gauza jakina zen, baina ez horren aspaldian. Dena den, eta agiri ofizialei dagokienez, 800 urte bete ditu aurten Lezoko herriak. Politikak 800 urte ditu. Hemengo biztanleek 9.000. Edo gehiago.





Azoka



IKUSI



IRAKURRI



ENTZUN

GU GARRA GU

kritikak

LEZOK 800 ANTZEZLANA



Begoña Amonarriz

Lezok, 800 urte eta ORRATX! Antzerki sailak, berriz, bost alajaina! Lezoko herriari zor genion urtebetetze oparia egin nahian, egun horretako antzerki ekitaldia gauzatzeko konpromisoa hartu genuen. Urtero eta Udalarekin daukagun hitzarmena betez, Lezoko herriarentzat emanaldia prestatu ohi dugu zintzo, bost urtetan bost obra gauzatzuz. Baina, azken hau ordea, desberdina izan da bereziki, eta egia esanda, ez genuen horrelako arrakastarik izatea espero, kontuan izanda oso denbora laburrean prestatu behar izan genuela. Batetik, guretzako ezezagunak diren arrazoiengatik, testuak oso berandu iritsi zitzaizkigulako eta bestetik, udako opporrak zirela eta, oso zaila zelako guzia koordinatzea. Ideia Udalean sortu zen, eta horretarako Agirre Sorondo anaiak kontratatu zituen emanaldia antolatzeko. Gu testuak jaso ondoren jo eta su hasi ginen, haien forma ematen. Kontatu genuen istorioa egia ala gezurra den, ez dagokigu guri aztertzea, baina guk sinetsi genuen eta berehala martxan jarri ginen. Aipamen berezi bat egin nahi diogu Lierni Fresnedoren imajinario, pazientzia eta hitz batean profesionaltasunari, izan ere, antzeslanari dagokion guzia bere eskuetan utzi zen eta horratx! emaitza. Aldi berean esan, udalak jarritako baliabideak ere oso garrantzitsuak izan zirela, gure lana asko dotoretuz: tresneria, argiak, soinua, Musika eskola, eta abar... Eguraldia ere gurekin izan genuen eta ikusgarria izan zela ezin ukatu, jendeak esan digunaren arabera, guk ez baitugu kanpotik ikusi hain zuzen. Ezin dugu alde batera utzi, antzeslanean parte hartu zuen herriko jendea. Alegia, taldean ohiko ez den jendearen partehartze zoragarria. Baita Pasaia-Lezo Lizeoko antzesleen ekarpen aberasgarria. Guzira ia berrogei lagun aritu ginen oholitza gainean, eta bazen oholitza atzeko lanetan aritu zenik ere. Honek, hurrengo emanaldietarako bakarren bat ere animatu du, beraz, gure taldea haunditzen doala esan beharra dago. Bide batez, esan, beti dauzkagula ateak irekita eta gu aurkitzen ez dagoela zail nahi duenarentzat. Jakin badakigu, ekitaldia grabatua izan zela, baita, bideotan jartzekoa zela ere. Oraingo ez dakigu, ordea, gauza zertan den. Ea lehenbailehen ikusteko aukera dugun. Ez adiorik.

LEZO ALDIZKARIA



Lander Zuzutuza

Hamabi urte, hogeii zerbaki eta ehunka artikulua. Horra hor, laburbilduta, herriar askoren lanak eta ilusioak urrutako bidea. la hutsetik abiatuta. Toponimia; gerraurreko bizipenak; Jaizkibel mendia; Aitor Sarasolaren ipuinak; elkarteak; Xanti Zabalaren bertsoak; alboko herriekin izandako gorabeherak; sorginak; Martzelino Legorburen bertsoak; demografia; hizkera; Joxe Juan Ugaldereen olerkiak; kortsarioak; Patri Urkizu; sargardogintza; Joxe Luix Agirretxeren olerkiak; gaskoiak; jaiak eta kultur ekitaldiak; Polentzi Gezala; atzerrian eta itasosan hildakoak; izurriak; Eperxokoko zuhaitzia; Rafa Bandresen kronikak; Koldobike Gezala; zuhaitz bereziak; Santiagoko bidea; herriar ospetsuak; arraunlariak; intsumisoak; Joseba Aurkenerenaren ipuinak; Aitor del Teso; kutsadura; Zubitxo erreka; Mikele Ibarraren bertsoak; Pello Kuesta; Trapujale Herri Antzerkia; ihauteria; presoen senideak; Kaxernako esneketaria; autobia; Marc Legaspe; Lezoandiko jaunaren hilketak; 1936ko gerra; euskararen historia soziala; Joxe Zelairenen bertsoak... Eta askoz gehiago. Denetik. Olentzeroren zakuan bezala. Baita ikatza ere.

ZERUA OSKARBI AZALTZEN DENEAN



Enaut Gantxegi

Hainbat lezoarrek osaturiko talde famatu baten inguruko kritika egin behar zela eta, niri egokitu omen zait berri ere. Honek bi ondoriotara eraman nau: edo Anderrek ez du beste inor lortu kritika hau egiteko, edo bestela herriko Joaquín Luqui naizela. Tira, badakit ez dela gauza batengatik edo bestearengatik izan, nigandik hurbil dagoen talde bati buruz hitz egitea nahi baitu gure santurtziarrak. Esan eta egin. Hemen naukazue euskal musikaren panoraman bere arto alea jarri zuten talde bati buruz hitz egiteko prest; taldearen izena: OSKARBI. Dakizuenek badakizue zergatik diodan gertukoa dudala taldea, eta ez dakizuenok baduzue zuten duda-mudetako bizitza honetarako beste galdera bat. Oskarbi esan dugu, ezta? Ez nahastu Oskorriekin gero! Lezoko ordezkari ez gain, Pasaia aldeko beste batzuekin batera osatu zen 60ko hamarkadaren erdialdean, eta pixkanaka ezagunak egiten hasi ziren (azpimarratzekoak dira jasotzen zituzten jarraitzaileen gutunak). Eta zer ekarri dio Oskarbi euskal kantagintzari? Bada hasteko gure kantagintza klasikoaren moldaketak, zeintzuekin doinu zaharrei aire berriak eman zizkieten. Bestalde, garai haietako erreferente kulturaleri tarte egin zieten (Jorge Oteiza, Bitoriano Gandiaga,...), une horretan Euskal Herriak bizi zuten eferbeszentzia kulturalaren isplu. Talde guziek izan ohi dute batuta edo ordena daraman norbait, eta Oskarbiaren kasuan Luis Romero Antxotarra izan zen. Berak jakin izan zuen taldekideen talentua bideratzen, neskatila haien ahots zerutierra eta mutilen ahots sendoak nola konbinatu, alegia. Honela, bai euskal folklore errejistroan, nahiz beltz espiritual gisa entzun ahal izan genituen jardun izan zuten urteetan. Urte guzietan horietan aldaketa ugari izan zuten Oskarbi, baina ororen gainetik ohitura nagusi bati jarraitu zion: Abestu. Oraindik orain ere ohitura horrekin darraite, eta ziur nagoz eztarriko sokak urratu arte jarraituko dutela.

bibliografia

Orratx! Lezoko aldizkaria

Lezoko politikari buruz gehiago jakin nahi baduzue, Udal Liburutegian, besteak beste, liburu eta artikulua hauek irakurgai dituzue

Zenbait egile: Lezoko Gida. Natura eta giza lorratza.

Etxezurieta, K: Lezo herriaren ikuspegi sozio-politiko-ekonomikoa

Garmendia, G. eta San Roman, A.: Lezoko demografia eta industria XX. mendearen

Esnaola, I. eta Agirretxe J.L.: Lezoko euskararen azterketa

Esnaola, I: Lezoko euskararen historia soziala

Chil Estevez, A: Pildain, un obispo para una época

Egaña, I: 1936: Gerra Zibila Euskal Herrian (IV. Tomoa)

Tena, M.S.: La sociedad urbana en la Guipuzcoa

costera medieval

Rilova Jerico, C: Dueño y señor de su estado. El señorío colectivo de la ciudad de Hondarribia (1499-1834)

EUSTAT: Udal adierazleak

Orratx! aldizkaria
"Lezo" aldizkaria

Honez gain:

www.1.euskadi.net

www.lezo.net

Iturri zuzenak izaten dira onenak, beraz Udal Artxiboi Historikoan herriaren historiari buruzko testigantza zuzenak aurki ditzakezue

moko-goxo

Udala norena den eztabaida luzea izan daiteke, politikoez kudeatzen dute, baina herritarrek ba al dute ahotsik? Udalbatza batean mozio bat aurkezteko jarraitu beharreko pausoak dira honakoak. Zuen ahotsa entzutea nahi baduzue, hona aukeretako bat.

PROPOSATU DIGUTEN PLATERA

Udalean mozio bat aurkeztu

OSAGIAK

- ✎ Ideia bat
- ✎ Salaketa bat
- ✎ Proposamen bat
- ✎ Ekarpen bat
- ✎ Edo beste edozer gauza

PRESTAKETA

Aldez aurretik herritar parte hartze modu hau zuzenean ezin dela egin argitu behar da. Beti ere, talde politiko batek edo herriko alkateak aurkeztu behar du mozioa. Ezinezkoa da pertsona edota elkarte batek udalbatzara eramatea. Beraz, bitartekaritzan lanak egin behar dira, nahitaez.

Legeek ederki finkatzen dute mozio baten prozedura, baina plater goxo hau prestatzeko bi modu sinple azalduko ditugu; alkatearen bidea bat, eta alderdi politikoaren bidea bigarrena.

Behin mozioa prest edukita, udaletxeko erregistroan sartu behar da. Idatzi hori alkateari iritsiko zaio, eta hark erabakiko du estimutan hartu edo ez. Beste zinegotzietan ere iristea nahi bada, espreski adierazi behar da eskaera egiteko garaian. Alkateak, mozioa jaso ondotik hurrengo udalbatzako puntuen artean sartu edo ez erabakiko du, gai ordenean sartu ala ez alegia. Mozioa tratatzea erabakitzen badu, aurkeztu duen taldeari udalbatza noiz egingo den esan ohi zaio, nahi izanez gero, aurkeztutakoa defendatzeko.

Bigarren bidea alderdi politiko batekin hitz egin eta hark aurkeztea da. Alderdi batek udalbatzan bertan eska dezake gai ordenean mozioa eztabaidatzea. Eskaera egin, eta zinegotzi guzietan bozkatuko dute puntuen artean sartuko duten ala ez. Onartuz gero, udalbatzako gai ordeneko azken puntua izatera pasako da.

Bi bide hauetako bat aukeratu eta dena ongi joanez gero, aurkeztutako mozioa udalbatzan eztabaidatuko da, eta zinegotzietan bozka bidez hura onartzen duten erabakiko dute.



lehiaketa

Azken Orratx 800! aldizkaria denez, zenbaki honetan ez dizuegu lehiaketa berririk proposatuko, baizik eta, herri eskaerari erantzunez, aurreko hiru lehiaketen erantzunak argitaratuko ditugu. Bukatu baino lehen, eskerrak eman nahi dizkizuegu parte hartu duzuen guzioi, baita erantzunak asmatzeko kontsultaren bat egin duzuenoi ere. Norbaiten jakinmina pizteko baliogarria izan bada, gure helburua bete dugu. Hona hemen ba, galderen erantzunak

ORRATX 800! - ARTEA

1. Zein urtetan banatu ziren Lezo eta Pasai Donibane?

a) 1770

2. Nor zen Gaztelako erregea 1203. urtean Lezo sortu zenean?

b) Alfonso VIII.

3. Nor da Gurutze Santuaren bi-driera nagusian azaltzen den pertsonaia?

c) San Leon

4. Non zegoen Santiagotxoren ermita?

b) Gaintxurizketan

5. Non hil zuten Juanes de Salaberria?

d) Kale Nagusian

6. Non dago lurperatuta Antonio Pildain?

d) Las Palmasen

7. Zenbat baserri zeuden zenbatuta Lezon 1600. urtearen inguruan?

b) 40

8. Noiz jaio zen Elias Salaverria?

b) 1883

9. Zenbat metro dauka Lezoko punturik altuenak?

d) 545

10. Noiz sortu zen Orratx! aldizkaria?

c) 1996

ORRATX 800! EKONOMIA

1. Agustina Lizarazu

Lezoar maistra eta katekista (1873-1965)

2. Antonio Pildain

Kanarietako Gotzaia eta Gipuzkoako Diputatu nazionalista Madrilgo Gorteetan (1890-1973)

3. Elias Salaberria

Pintore ospetsua eta Madrilgo San Fernando Arte Ederretako akademikoa (1883-1952)

4. Eugenio de Ochoa

Literaturgile ospetsu eta margolaria (1815-1872)

5. Frantzisko Gaintza

Irungo parrokiako erretore, historiagile eta idazlea (1658-...)

6. Guillermo de Lazon

1203an Lezoren fundatzailea eta Lezoaundineko baroia

7. Hipolito Gezala

Lezoko parrokiako organujole bikaina, musikari eta Schola Cantorumeko zuzendaria (1879-1958)

8. Karlos Saldise

Pasaitar empresari abertzalea. BVEek Lezon eraila (1946-1980)

9. Lexo Bertsolaria

Juan Jose Sarasola. Gaintza baserrian sortutako bertsolaria (1897-1952)

10. Lope de Isasti

Parrokiako bikarioa eta teologidoktorea. Lezoar idazle eta historiagile famatua. Compendio historial de la Provincia de Guipuzcoa lanaren egilea (1560-1612)

ORRATX 800! GIZARTEA

1. Zenbateko azalera dauka Lezok?

b) 8,5 km²

2. Zenbat biztanle dauka 2001eko erroldaren arabera

c) 5834

3. Errolda beraren arabera zenbat lezoar zeuden langabezia?

a) 178

4. Ofizialki, itsasoaren gainetik zenbat metrotan dago Lezo?

b) 16 m.

5. Lezoko Barne Produktu Gordina banatuta, zenbat euro legokioke lezoar bakoitzari?

b) 15.987

6. Zenbat liburu, disko eta bideo aurki daitezke Udal Liburutegian?

d) 13.420

7. Zenbat banku bulego daude herrian?

b) 5

8. Zenbat autobus ateratzen da lan egun batean Lezotik Donostiara

c) 44

9. Zein izan zen ohiko Orratx aldizkariaren azkeneko zenbakia?

c) 64

10. Zenbateko biztanle-dentsitatea du Lezok?

c) 686,35 bizt./ km²

Lezok

The logo for 'Lezok' is centered at the top. The word 'Lezok' is written in a stylized, golden-yellow font. The letter 'o' is replaced by a blue circle containing a white silhouette of a person with arms raised. Below the text is a blue horizontal bar with white wavy lines representing water. To the right of the bar are three blue circles, each containing a white silhouette of a water droplet.